



2006-07-05

Udan ere euskaraz irakurtzeko aukera badute Uribe Kostako haurrek

Uda honetan, uztailean hain zuzen ere, Irakurtzeko Txokoak izeneko jardueran parte hartzeko aukera izango dute, Uribe Kostako Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako hondartza eta parkeetara hurbiltzen diren umeei. Txokoek liburutegia eta ipuin kontaketa gunea dute, 4-12 urte bitarteko neska-mutilentzat. Bigarren aldia ekimena antolatzen duela mankomunitateak. Laz hasi ziren, eta aurten ere herriz herri ibiliko dira: Berango, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizen. Hondartza daukaten herrietan bertan, eta bestela herriko parkeren batean. Jarduerak irakurzaletasuna bultzatu eta euskararen erabilera sustatu nahi du aisialdi-lekuetan, antolatzaileen iragarri dutenez, eta horretarako, 300 metro koadroko gunea jarri dute, bi zatitan banatuta: liburutegia eta ipuin-kontaktetako gunea. Liburutegira hurreratzen denak eskuragarri izango du 450 bat liburu, nahi duena hartu eta irakurtzeko. Eta ipuin-kontaktetako gunera sartzen denak hainbat ipuin entzun ahal izango ditu egunean zehar, 20 minutuko txandetan. Gune batean zein bestean, begirale elebidunak izango dira ekintza aurrera eramateko.

Ikusi egutegia eta ordutegia, herriz herri (eguraldi txarra egitekotan, ikusi toki alternatiboak).